



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Espezializautako foro batek goraiatu egin ditu Enkarterrietako Museoak bere erakusketak eta jarduerak urritasuna daukien pertsoneri zabaltzeko hartu dituan neurriak

Abellanedan, 2013ko abenduaren 2an

Enkarterrietako Museoak azken urteetan, Gorabide alkar-teagaz alkarlanean, bere jarduerak eta erakusketak gizarte osoari zabaltzeko, urritasuna daukien pertsoneri batez be, egin dauen beharra, azpimarratu da gaur Abellanedako Batzar Etxean ospatutako "Museoak danontzat. Esperientzia inklusiboak" jardunaldian. Bertara, Bizkaiko museoakaz eta urritasunaren arloan behar egiten daberen alkar-teakaz erlazio-nautako hainbat talde-tako ia ehun ordezkari hurbildu dira, eta Enkarterrietako museoak, bertako espazioak gero eta inklusiboak izan daitezzen eta pertsona guztiek gozau ahal daiezzen, egin dauen beharra egiaztatu ahal izan dabe.

Enkarterrietako Museoak emondako pausuak izan dira esperientziak partekatze-ko foro espezializaua martxan jarteko, bertaratutako guztiek museo- en eukiak eszenan jarteari buruzko gogoeta egiteko eta, batez be, urritasun arazoak daukiezen pertsonentzako zelan egokitu ikusteko, atxakia. Holan, jardunaldiaren irekiera ekitaldian, Ana Madariagak, Batzar Nagusietako presidenteak, Abellanedako museoak, bertako eukiak ahalik eta jente gehienari zabaltzeko egindako esfortzuak azpimarratu ditu. “Gaur, zailtasun kognitiboak daukiezen talde- engandik urrago gagoz, eta kultura eta dibulgazino jarduerak urritasunak daukiezen pertsoneri urreratzea lortu dogu” esan dau.

Pertsona horre- engana hurreratze-ko Enkarterrietako Museoaren kultur eskaintzea egokitzeko prozesua egin da, bertako eukiak “danek ulertze-ko modukoak izan daitezzen”. Madariagak azpimarratu dauenez, etorkizunean egin beharre-ko lana, “pertsona guztientzako diseinua” lortzera bideratu behar da, eta “produktuak eta inguruneak erabilte-ko aukerak hobetzera, ahalik eta erabiltzaille gehienek erabili ahal daiezzen, egokitzapen bereziak edo bertsino alternatiboak sortu behar barik”.

Hobekuntza horreen artean, Ainara Arranzek, Enkarterrietako Museoko jarduera didaktikoen arduradunak, eta Ismael Garzónnek, Gorabideko arreta zuzeneko koordinatzaileak, euren hitzaldian, erakusketetan eta jarduera pedagogikoetan “danontzat” egokitutako irakurketa errazeko euskarriak jarri izana azpimarratu dabe, eta baita eukien dibulgazinoaren arloan teknologiak eskintzen dituan hobekuntzak baliatzea be, irakurtze-ko zailtasunak dituen pertsonentzako bideoak eta audioak sortze-ko aukera emoten daberen QR kodeen bitartez.

Ganera, Natxo Martínez (Psikologian Doktoorea eta irakaslea Deustuko Unibersidadean) eta Antonio Espinosa (Filosofia eta Letretan Doktoorea eta Villajoyosan, Alacanten, dagoan Vilamuseu izenekoaren Zuzendaria) adituek, eurek egiten daberen lana azaldu dabe, bakotxak bere arloan, museoek eta beste erakunde batzuek, gura barik izan bada be, jarri dituen oztupoak gainditu ahal izateko. Lehenengoak, artea eta erakusketetan egoten diran elementuak pertsona guztiek ulertu daiezzen ingurune egokienei buruz egin dau berba. Espinosa, bere aldetik, XXI.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

mendeko museoek irisgarritasunari, erabilerraztasunari eta inklusioari jagokonez izango dituen erronketan zentratu da, Mediterraneoko herrian dagoan museoako arduradun gisa izan dauden esperientziaren barri emon eta gero. Biek be goraiatu egin dabe Enkarterrietako Museoak hasitako bidea.

Jardunaldian Bizkaiko museoen ordezkariak zabala egon da (Guggenheim Museoa, Athletic Museoa, Berreginen Museoa, La Encartada Museoa, Errekalde Aretoa, Santimamiñe, Arkeologia Museoa ...) eta baita urritasuna daukien pertsonen arloan behar egiten daben alkarteena (Gorabide, Lantegi Batuak, Apnabi, ONCE...) be.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Un foro especializado elogia las medidas del Museo de Las Encartaciones por abrir sus actividades a personas con discapacidad

Abellaneda, a 2 de diciembre de 2013

El trabajo realizado en los últimos años por el Museo de Las Encartaciones, en colaboración con la asociación Gorabide, por abrir sus actividades y exposiciones a toda la sociedad, especialmente a las personas con discapacidad, ha sido destacado hoy en la jornada "Museos para todos. Experiencias inclusivas" que se ha celebrado en la Casa de Juntas de Abellaneda. A la misma, casi un centenar de representantes de distintos colectivos relacionados con los museos vizcaínos y con asociaciones que trabajan en el ámbito de la discapacidad, han podido constatar el esfuerzo del museo encartado por lograr que sus espacios sean cada vez más inclusivos y abiertos al disfrute de personas con problemas sensoriales.

Los pasos acometidos por el Museo de Las Encartaciones durante los dos últimos años, han sido la excusa para poner en marcha un foro especializado con el que compartir experiencias, en el que los asistentes han podido reflexionar sobre la puesta en escena de los contenidos museísticos y sobre cómo debe de ser la plasmación de estos contenidos en un lenguaje comprensible para personas con discapacidad. Precisamente, en la apertura de la jornada, la Presidenta de las Juntas Generales, Ana Madariaga, ha destacado los esfuerzos del centro de Abellaneda por abrir sus contenidos a un mayor público. "Hoy estamos más cerca" de colectivos con dificultades cognitivas, "logrando acercar la cultura y sus actividades divulgativas a personas con distintas discapacidades", ha dicho.

El acercamiento a estas personas ha sido posible gracias a un proceso de adaptación de la oferta cultural del Museo de Las Encartaciones para que sus contenidos "fueran comprensibles para todos". Madariaga ha resaltado que, en el futuro, el trabajo debe ir encaminado a lograr "un diseño para todas las personas", así como enfocar los esfuerzos también "a mejorar la usabilidad de productos y entornos por el mayor número posible de usuarios, sin crear adaptaciones especiales o versiones alternativas".

Entre estas mejoras, Ainara Arranz, responsable de las actividades didácticas del Museo de Las Encartaciones, e Ismael Garzón, coordinador de atención directa de Gorabide, han destacado en su ponencia la implantación de soportes de lectura fácil adaptada "para todos" en exposiciones y actividades pedagógicas, y el aprovechamiento de las mejoras tecnológicas en el campo de la divulgación de contenidos a través de códigos QR que permiten crear vídeos y audios para aquellas personas con problemas de comprensión lectora.

Asimismo, los expertos Natxo Martínez (Doctor en Psicología y profesor de la Universidad de Deusto) y Antonio Espinosa (Doctor en Filosofía y Letras y Director de Vilamuseu en Villajoyosa, Alicante) han explicado su trabajo, cada uno desde su campo, para lograr superar las barreras que, sin quererlo, los museos y otras instituciones han ido poniendo. El primero ha



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

disertado sobre los entornos idóneos para que el arte y los elementos expositivos sean comprensibles para todas las personas. Por su parte, Espinosa se ha centrado en los retos que tendrán que abordar los museos en el siglo XXI en cuanto a accesibilidad e inclusión, tras contar su experiencia como responsable de los museos de la villa mediterránea. Ambos han elogiado el camino emprendido por el Museo de Las Encartaciones.

La jornada ha contado con una amplia representación de otros museos vizcaínos (Guggenheim, Museo Athletic, Reproducciones, La Encartada, Sala Rekalde, Santimamiñe, Museo Arqueológico...), y también de asociaciones que trabajan en el ámbito de las personas con discapacidad (Gorabide, Lantegi Batuak, Apnabi, ONCE...).